

Ermua Saskibaloia talde sortu berriak urrian ekingo dio liga txapelketa jokatzeari

Saskibaloia zaletuak ugarriak baziren ere, Ermuan ez zegoen orain arte kirol honetan aritzen den talde federaturik. Ermua Saskibaloia taldeak beteko du hemendik aurrera hutsune hori. Jose Luis Ramos eibartarrak zuzenduta, 12 saskibaloia jokalarik Bizkaiko 2. mailan jokatuko dute. Liga txapelketa urriko bigarren asteburuan hasiko da, nahiz eta oraindik ez dagoen argi ze talderen kontra jokatuko duten.

Ermua Saskibaloia taldearen "etxea" udal polikiroldegia da, bertan entrenatzen baitute eta partidua ere bertan jokatuko baitituzte.

Lehen partidua

Aurreneboraldia irailaren batean hasi zen, entrenamenduekin batera. Entrenamenduen ondoren, saskibaloia taldeak jokatuak lehenengo partidua Zaldibarko Zaldia taldearen kontra izan zen. Lehenengo lehia honetan 45-58 galdu zuten ermuarrek. Galdu



Ermua Saskibaloia taldeko jokalariek eta entrenatzaileak, ea donboraldi ona burutzen duten.

Santos Vega

arren, ez zuten gogo txarrez hartu porrota. Izan ere Zaldia taldeak Bizkaiko lehenengo mailan jokatzen du, ermuarrek baino maila bat gorago. Ermuarren artean gehien nabarmendu zen jokalaria Sergio Plaza izan zen, 17 puntu sartu eta

gero. Lehen partidua honetara 75 ikusle inguru bildu ziren. Taldeko arduradunek aipatu dutenez ez dute sarerarik kobratzeko asmorik. Hala ere, gastuak ordaintzeko laguntza bonoak egingo dituztela adierazi dute.

Urdinez

Saskibaloia taldeak ermuar taldeen orain arteko kolorearekin hautsiko du. Gorria barik urdina izango da Ermua Saskibaloia taldearentzat Muga Kirolakek prestatu duen erropa.

Aitzol Uriarte

Bar

Ermua

IZARRA Garraioak



Valdespinako Markesa, 5 - 1.a
 ☎ 943- 17 01 01 • ERMUA

QUETZAL

Opari denda

Zure gustokoa izan dadila!

Goienkale kalea ☎ 17 43 62

ROSA MARI HARATEGIA - URDAITEGIA

- * Etxeko txorizo eta odolkoa
- * Hestebete iberikoa
 - * Solomoa * Besoa
 - * Saltxitxoia * Txorizoa
- * Pateak * eta abar

Zubiaurre, 22 - Tfnoa. 17 06 80